

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

AMURRIKO ESQUALDEKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordearen osaera, Europako Parlamenturako 2024ko ekainaren 9ko hauteskundeetarako

Amurrioko, 2024ko apirilaren 19an, 13:30ean. Europako Parlamentuko diputatuak aukeratzeko hauteskundeetarako deia egiten duen apirilaren 9ko 363/2024 Errege Dekretuaren bidez, Europako Parlamenturako hauteskundeetarako deia egin zen. Hauteskundeak 2024ko ekainaren 9an, igandea, izango dira. Eta Eusko Legebiltzarrerako 2024ko hauteskundeetarako eratu zen Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea deuseztatu ez denez, haren agintaldia luzatzen da Europako Parlamenturako 2024ko hauteskundeetarako. Beraz, hauteskunde horietarako, batetik, honako bokal judicial hauek osatuko dute batzordea: Juncal Andrés Gallego, Amurrioko lehen auzialdiko instrukzioko 1. zenbakiko epaitegiko epailea, lehendakari eginkizunak beteko dituen; Maria Cruz Perez, Amurrioko lehen auzialdiko eta instrukzioko 2. zenbakiko epaitegiko epailea, eta Milagros Urtaran Urtaran, Urkabustaizko bake epailea. Eta, bestetik, honako bokal ez-judizial hauek: Leopoldo Barañano Goitia eta Alberto Zulueta Martinez, nik, Leire De Lucas Almarzarrek, lehen auzialdiko eta instrukzioko 2 zenbakiko epaitegiko idazkari eta Amurrioko Zerbitzu Orokorreko zuzendari naizen honek lagunduta.

Batzordeko plantilla laguntzailea idazkariak izendatuko duela erabaki da.

Batzordeko lehendakariak erabaki du Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordea eratu izana eta haren osaera jasotzen dituen ediktu hau ALHAOn argitaratzea.

Beste gairik ez dagoenez, lehendakariak amaitutzat jo du bilkura, eta hari buruzkoak hemen jasotzen dira, eta bertaratu diren guztiek eta nik, idazkariak, sinatzen dugu, eta horren guztiaren fede ematen dut.

Amurrioko, 2024ko apirilaren 19a

Amurrioko Eskualdeko Hauteskunde Batzordeko idazkaria
LEIRE DE LUCAS ALMARZA